

Euskal Autonomia Erkidegoko arreta espezializatuko estatistika

2021. urtea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 030502 estatistika-eragiketa.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Osasun Saila

Departamento de Salud

Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza
Belén Pardillo, Inés Sánchez eta Imanol Montoya.

Itzulpena:
Azterlan eta Ikerkuntza Sanitarioko Zerbitzua.

Erabilera-baimena:
Guztiaren edo zati baten erreprodukzioa baimenduta dago, erabilpen komertzialerako izan ezik, baldin eta dokumentuaren aipamena egiten bada.

Iradokitako aipamena:
Pardillo B, Sánchez I, Montoya I. Euskal Autonomia Erkidegoko arreta espezializatuko estatistika. 2021. urtea.
Gasteiz: Osasun Saila, Azterlan eta Ikerkuntza Sanitarioko Zerbitzua, 2023.

Edizioa: Lehenengoa, 2023ko ekaina
© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Osasun Saila

Internet:
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/siras/eu_def/adjuntos/2021/Emaitzen-laburpena-2021.pdf

Emaitza nagusiak

2021ean, EAeko arreta espezializatuko jarduera nabarmen suspertu zen, 2020. urtearekin alderatuz, hau da, COVID-19aren pandemia hasi zen urtearekin, zeinak jarduera horren ohiko funtzionamendua baldintzatu baitzuen, eta eragin handia izan baitzuen osasun-sisteman. 2020arekin alderatuta, 2021ean:

- 1.000 biztanleko, larrialdi-kopurua % 18 igo zen eta ospitaleratutako larrialdien kopurua %10 jaitsi zen.
- Ohe-kopurua % 0,7 jaitsi zen.
- Errotazio-indizea (pazientea/ohea) % 8 igo zen.
- Erizainen kopurua % 1 jaitsi zen, eta pertsonal medikoak, berriz, ia % 4 igo zen.
- Ebakuntza kirurgikoak ia % 17 igo ziren.
- 1.000 biztanleko, kanpo-kontsulten kopurua ia % 12 igo zen.
- Erditze-kopurua % 5 jaitsi zen Bizkaian.

EAEko ohe-kopurua % 0,7 jaitsi zen 2021ean, 2020arekin alderatuta.


Ohea oinarrizko baliabidea da ospitale baten egituran; haren aprobetxamenduak neurtzen du ospitalearen efizientzia.

Arreta Espezializatuko Estatistikaren 2021ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak 39 ospitalez osatutako sarea zuen (16 ospitale publiko eta 23 pribatu), eta 7.216 ohe zituen, guztira. Horietatik % 71 sektore publikokoak ziren, eta horrek agerian utzi zuen ospitale-asistentzian parte-hartze handia zutela. Ospitale motei dagokienez, oheen % 74 akutuen ospitaleetakoak ziren, % 7 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetakoak eta % 19 ospitale psikiatrikoetakoak.

Horrek guztiak esan nahi du 1.000 biztanleko 3,3 ohe zeudela EAEn; Espainian, berriz, 2,96 ohe zeuden 2021ean.


Hurrengo irudian erakusten da 2012-2021 seriean zer bilakaera izan duten ospitale publikoetako oheen eta egonaldien urteko kopuruek. Ospitale publikoetako ohe-kopurua murrizten joan zen 2018rarte, 2019an eta 2020an igo egin zen kopurua eta ondoren berriro 2021ean jaitsi zen. Egonaldien kopurua ia % 1 gutxitu zen urtean, 2020an % 8,5eko beherakada esanguratsua gertatu zen, eta 2021ean egonaldiak % 2,8 igo dira 2020. urtearekin alderatuta; beraz, aurreko urtearekin alderatuta, susperraldia egon da.

EAEko ospitale publikoetako oheen eta egonaldien urteko kopuruaren bilakaera.



Titulartasun pribatuko ospitaleen kasuan, beherakada nabarmenagoa da seriearen bilakaeran: 2021ean 2012. urtean baino % 11 ohe gutxiago zeuden. Egonaldiei dagokienez, 2021n baino % 14 gutxiago izan ziren.

EAEko ospitale pribatuetako oheen eta egonaldien urteko kopuruen bilakaera




2021ean, errotazio-indizea (pazientea/ohea) % 8 igo zen EAEn.

Ospitaleko jardueraren eta funtzionamenduaren bilakaera baloratzeko, oso interesgarria da denbora, bolumena eta baliabideak uztartzen dituzten adierazle sanitarioak erabiltzea (altak, egonaldiak eta funtzionamenduan dauden oheak). Errotazio-indizeak islatzen du urtebetean zenbat paziente igarotzen diren funtzionamenduan dagoen ohe bakoitzetik; bera da adierazle onena ohe-baliabidearen produktibitatea sintetizatzen.

Egonaldiko egunen batez bestekoa oso adierazle garrantzitsua da, oheen aprobetxamendua eta Ospitalean zerbitzuak emateko erabiltzen den arintasuna neurtzeko aukera ematen baitu.

Ospitale publikoen eta pribatuen azken urteko (2021) batez besteko egonaldia kontuan hartzen bada, egonaldi hori 5,7 eta 8,7 egunekoa da, hurrenez hurren. Zentroaren titulartasunaren arabera kalkulatu badugu paziente batek batez beste zenbat egunez okupatzen duen ohe bat, emaitza hau lortzen dugu: zentro publiko bateko ohe bat batez beste 272 egunez dago okupatuta urtean; aldiz, titulartasun pribatuko ospitaleen kasuan, ohe bat batez beste 247 egunez egon da okupatuta aztertutako azken urtean.


Hurrengo irudian ikus daiteke zer bilakaera izan duen errotazio-indizeak zentro publikoetan zein pribatuetan: % 3ko igoerarekin eta % 11ko murrizketarekin, hurrenez hurren, 2012-2021 aldian. Aztertutako bi urteak kontuan hartuta, bai ospitale publikoetan, bai pribatuetan, indize hori igo egin zen.

Errotazio-indizearen bilakaera, titulartasunaren arabera

2021ean, erizaintzako langileen kopurua % 1 jaitsi zen EAEn, 2020koarekin alderatuta.


Osasungintzako langileen (mediku, erizain eta osasungintzako beste langile batzuen) kopuruak gorakako bilakaera izan zuen 2001-2021 aldian, eta kopuru hori bikoiztu egin da azken 21 urteetan erizainen eta osasungintzako beste langile batzuen kasuan. 2020arekin alderatuta, 2021ean erizaintzako langileen kopurua % 1 gutxitu zen, eta pertsonal medikoa eta beste osasun-langile batzuk, aldiz, % 3,6 eta % 4,1 igo ziren, hurrenez hurren.

Osasungintzako langileen banaketaren bilakaera EAEn



Hurrengo irudian ikusten da gora egin dutela medikuen kopuruak eta erizainenak, 2001-2021 aldian okupatutako ohe kopuruarekiko. 2020an bereziki esanguratsua izan zen erizaintzako langileen kopuruaren gorakada ohe okupatuen kopuruarekin alderatuta, eta 2021ean, berriz, murriztu egin zen aurreko urtearekin alderatuta.

Egitura-adierazleen bilakaera EAEn



Ebakuntza kirurgikoak EAEn ia % 17 igo ziren 2021ean, bigarren urtea, COVID-19aren pandemia hasi zenetik.

Ebakuntza kirurgikoak gehitu zitzaizkien asistentzia-jardueraren hazkunderik handieneko eremuei. 2021ean, aurreko urtearen aldean, ebakuntza kirurgikoak % 14,4 gehitu ziren ospitaleetan eta % 24,6 zentro publikoetan eta pribatuetan, hurrenez hurren.

2021ean, larrialdietako zerbitzuek 1.125.259 pertsona artatu behar izan zituzten EAEn (aurreko urtean baino 166.047 gehiago); horietatik % 78 ospitale publikoetan artatu ziren. 2021ean, ospitaleratutako larrialdiak ia %13 jaitsi ziren ospitale publikoetan, aurreko urtearekin alderatuta, eta pribatuetan % 2.


2021ean, ospitaleratzeak % 6,4 igo ziren 2020arekin alderatuta; Araban igo ziren gehien (% 8,3). Zentroaren titulartasuna kontuan hartuta, esan dezakegu ospitale publikoetan ospitaleratzeak igo zirela (% 5,5), eta titulartasun pribatuko ospitaleetan, berriz, ospitaleratze horiek % 10,8 igo zirela. Ospitale-mota kontuan hartuta, nabarmentzekoa da akutuen ospitaletan 2020an baino % 7 ospitaleratze gehiago egon zirela, eta ospitale psikiatrikoetan, aldiz, ia % 8 ospitaleratze gutxiago.

2021ean, 1.900.162 ospitale-egonaldi izan ziren, 2020an baino % 2,8 gehiago. Egonaldien % 73 ospitale publikoetan egin ziren. Akutuen ospitale publikoetako batez besteko egonaldia 4,8 egunekoa izan zen; akutuen ospitale pribatuetakoa, berriz, 3,1 egunekoa. 2020. urtearekiko, batez besteko egonaldia % 2,1 igo zen akutuen zentro publikoetan, eta % 11,4 jaitsi zen pribatuetan.

Akutuen ospitaleetako barneko kanpo-kontsultetan 3.604.594 milioi kontsulta egon ziren 2021ean. Ospitale barneko kanpo-kontsulten kopuruaren gorakada handiena Araban gertatu zen, aurreko urtean baino % 12,5 kontsulta gehiago izan baitziren, eta ondoren Bizkaian, % 11,7 gehiago. Aurreko urtea kontuan hartuta, esparru publikoan % 8,1ko gorakada izan zen, eta esparru pribatuan ere igo egin ziren kontsulta horiek, kasu honetan, 2020an baino % 29 gehiago.


2012-2021 aldian, akutuen ospitaleetako barneko kanpo-kontsulten kopuruak (1.000 biztanleko) gora egin zuen zentro publikoetan (% 35), hurrengo irudian ikus daitekeen bezala. 2021ean, aurreko urtearen aldean, akutuen zentro publikoetako kanpo-kontsulten kopurua % 8,1 igo zen.

Akutuen ospitaleetako barneko kanpo-kontsulten bilakaera, titulartasunaren arabera




Ospitaleko kanpo-kontsulten kopuruak etengabe egin du gora azken zortzi urteetan; 2020an, behera egin du aurreko urtearekin alderatuta, eta 2021ean susperraldia izan da, pandemiaren aurreko mailara iritsi arte. 880.403 kontsulta gehiago izan ziren 2021ean 2012arekin alderatuta, azterketa-aldi berean ospitaleratzeen kopurua 15.452 gutxiagotu zen eta larrialdietan 26.346 kontsulta gehiago izan ziren.

EAEko ospitaleratzeen, ospitale barneko kanpo-kontsulten eta larrialdien kopuruaren bilakaera




Hurrengo irudian, mila biztanleko ospitaleratzeen eta batez besteko egonaldiaren arteko erlazioa ikus daiteke (egonaldia, egunetan). Nabarmentzekoa da 2019 eta 2020 artean izandako beherakada mila biztanleko ospitaleratze-kopuruetan, 162,4 2019an eta 129,7 2020an, 2021ean diru-sarrerak handitu egin dira aurreko urtearen aldean, eta 138,5ean geratu dira. Egunetako batez besteko egonaldia 6,2 egunekoa izan da 2021ean.

1.000 biztanleko ospitaleratzeen eta ospitaleratze-egunen kopuruaren arteko erlazioaren bilakaera



2020rekin alderatuta, 2021ean, larrialdi guztien kopuruak % 17,3 egin zuen gora, baina ospitaleratutako larrialdien ehunekoak behera egin zuen, 2020an % 14 izatetik 2021ean % 12,6 izatera igaro baitzen.


Larrialdi guztien kopuruaren eta ospitaleratutako larrialdien arteko erlazioaren bilakaera



Hurrengo irudian, kirurgia handi anbulatorioaren (KHA) joera ikusten da, bai ospitale publikoetan, bai pribatuetan. 2012-2017 aldian, % 30,5ko igoera izan zen zentro publikoetan eta % 41,4koa pribatuetan; 2017-2018 aldian, berriz, alderantzizko joera egon zen, hau da, % 18ko jaitsiera publikoetan eta % 10ekoa pribatuetan.

Aztertutako azken urtean –2021– eta aurreko urtearekin alderatuta, ohartuko gara berriz ere gora egin duela bai sektore publikoan eta bai pribatuan: % 12,2 eta % 27,8, hurrenez hurren.


Kirurgia handi anbulatorioko (KHA) ebakuntza kopuruaren bilakaera, titulartasunaren arabera



Batez besteko egonaldiak honako hau neurtzen du: antolamendu-unitate batek ospitaleratze-gertaerak konpontzeko behar duen batez besteko denbora. Pazienteen ospitaleko egonaldia islatzen du. Zerbitzuen prestazioaren eta ohe-baliabidearen erabileraren efizientzia adierazten du.

Akutuen ospitaleetako batez besteko egonaldien (egunak) 2012-2021 arteko bilakaera kontuan hartuta, ikus daiteke ospitale publikoetako egonaldiek behera egin dutela: 2012n 5,1 egun izatetik 2021ean 4,8 egun izatera igaro dira. Zentro pribatuei dagokienez, 2012an 3 egun izatetik 2021ean 3,1ekoa izatera igaro da.

Batez besteko egonaldiaren bilakaera akutuen ospitaleetan, titulartasunaren arabera




2021ean, erditzeen kopurua % 5,4 jaitsi zen Bizkaian, 2020arekin alderatuta.

Erditzeen kopuruak behera egiten jarraitzen du, eta beherakada hori sektore publikoan zein pribatuan erregistratu da, eta, ondorioz, ugalkortasun- eta jaiotza-tasek behera egin dute.

2021ean, % 3 jaitsi zen erditzeen guztizko kopurua 2020arekin alderatuta. Lurralde historikoei dagokienez: % 5,4 jaitsi zen Bizkaian eta % 1,6 Gipuzkoan eta pizka bat igo zen Araban, % 1,7. Erditzeen % 89 ospitale publikoetan artatu ziren. Zesarea kopuruak % 0,7 egin zuen behera 2021ean ehun erditzeko, 2020arekin alderatuta.

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, 2012-2021 aldian 100 erditzeko zesareen indizea askoz txikiagoa izan zen ospitale publikoetan ospitale pribatuetan baino, hala ere, nabarmentzekoa da 2021ean zentro publikoetan zesareak mantendu egin zirela, eta pribatuetan, berriz, jaitsi 2021ean (21,5), 2020arekin alderatuta (22,2).

Zesareen indizearen bilakaera ehun erditzeko, titulartasunaren arabera




	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
● Publikoa	12,9	13,1	13,5	13,0	12,6	13,5	13,4	13,6	13,9	13,9
● Pribatua	28,7	25,9	31,9	29,6	24,9	22,3	22,1	20,0	22,2	21,5

Urte

2021ean, nekropsien indizea, hildako 1.000 pertsonako 36,7koa izan zen EAEn; 2020arekin alderatuta, % 7,1 jaitsi da.

Irudian ikus dezakegu adierazle horren bilakaera 2012-2021 aldian.

Hildako mila pertsonako nekropsien indizearen bilakaera, titulartasunaren arabera




Gastua, guztira, % 8 handitu zen EAEn 2021ean, 2020arekin alderatuta

2021ean, 111,27 milioi euroko gastua egin zen inbertsioan. Ospitaleko gastu osoa 3.266 milioi eurokoa izan zen, eta horietatik % 97 ohiko gastuei zegozkien, eta % 3 inbertsioei.

Ospitaleetako jarduera EAeko BPGren % 4,2 izan zen. Biztanle bakoitzeko gastua 1.492 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 8,3 handiagoa; Espainiako Estatuan, berriz, biztanle bakoitzeko gastua 1.227 eurokoa izan zen 2021ean.

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, EAeko biztanle bakoitzeko gastua 552 eurokoa zen 2001ean, eta 1.492 eurokoa 2021ean.

Biztanleko gastuaren bilakaera EAEn

2001-2021 aldian langile-gastuak joera egonkorra izan zuen gastu osoaren ehunekoarekiko, gastu osoaren % 60 baino gehiago langile-gastura bideratu baita.

1. taula. EAEko Arreta Espezializatuko zifra ekonomiko nagusien bilakaera. 2020-2021

Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)	2020			2021			% Igoera		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Gastu arruntak	2.939.173	2.578.088	361.085	3.155.241	2.769.650	385.591	7,4	7,4	6,8
Inbertsioa	84.967	69.491	15.476	111.277	98.792	12.485	31,0	42,2	-19,3
Guztizko gastua	3.024.141	2.647.580	376.561	3.266.519	2.868.443	398.076	8,0	8,3	5,7
Guztizko sarrera	3.337.836	3.013.962	323.874	3.580.023	3.220.242	359.781	7,3	6,8	11,1

Iturria: Arreta Espezializatuko Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

2. taula. EAEko Arreta Espezializatuko zifra nagusien bilakaera. 2020-2021

		Guztira			Publikoak			Pribatuak		
		Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak
Baliabideak										
Oheak	2020	5.333	496	1.441	4.350	356	491	983	140	950
	2021	5.331	512	1.373	4.359	362	437	972	150	936
	% Igoera	-0,04	3,2	-4,7	0,2	1,7	-11,0	-1,1	7,1	-1,5
Laguntza-jarduera										
Sarrerak	2020	273.892	8249	2.747	223.543	6.807	1.770	50.349	1.442	977
	2021	292.955	7771	2.529	236.844	6.286	1.656	56.111	1.485	873
	% Igoera	7,0	-5,8	-7,9	6,0	-7,7	-6,4	11,4	3,0	-10,6
Egonaldiak	2020	1.232.172	142.478	473.195	1.059.332	106.011	165.153	172.840	36.467	308.042
	2021	1.303.102	141.423	455.637	1.133.438	103.498	155.604	169.664	37.925	300.033
	% Igoera	5,8	-0,7	-3,7	7,0	-2,4	-5,8	-1,8	4,0	-2,6
Altak	2020	273.405	8.386	3.164	223.486	6.807	1.794	49.919	1.579	1.370
	2021	293.692	7.772	3.023	238.120	6.265	1.678	55.572	1.507	1.345
	% Igoera	7,4	-7,3	-4,5	6,5	-8,0	-6,5	11,3	-4,6	-1,8
Ospitale barmeko kanpo-kontsultak	2020	3.237.361	30.596	35.192	2.780.876	10.050	3.373	456.485	20.546	31.819
	2021	3.604.594	30.046	41.741	3.004.803	11.555	3.684	599.791	18.491	38.057
	% Igoera	11,3	-1,8	18,6	8,1	15,0	9,2	31,4	-10,0	19,6
Larrialdiak	2020	953.095	5.332	785	730.620	5.332	-	222.475	-	785
	2021	1.118.780	5.581	898	873.146	5.581	-	245.634	-	898
	% Igoera	17,4	4,7	14,4	19,5	4,7	-	10,4	-	14,4
Ebaketak	2020	231.398	-	-	167.951	-	-	63.447	-	-
	2021	271.121	-	-	192.096	-	-	79.025	-	-
	% Igoera	17,2	-	-	14,4	-	-	24,6	-	-
Erditzeak	2020	14.677	-	-	13.128	-	-	1.549	-	-
	2021	14.233	-	-	12.701	-	-	1.532	-	-
	% Igoera	-3,0	-	-	-3,3	-	-	-1,1	-	-
Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)										
Guztizko gastua	2020	2.770.816	86.600	166.726	2.460.625	70.665	116.290	310.191	15.935	50.436
	2021	3.006.386	87.715	172.418	2.675.153	71.685	121.604	331.233	16.029	50.814
	% Igoera	8,5	1,3	3,4	8,7	1,4	4,6	6,8	0,6	0,7
Gastu arruntak	2020	2.693.023	83.301	162.850	2.394.460	67.921	115.707	298.563	15.379	47.142
	2021	2.900.797	86.235	168.210	2.579.447	70.377	119.826	321.350	15.858	48.384
	% Igoera	7,7	3,5	3,3	7,7	3,6	3,6	7,6	3,1	2,6
Inbertsioa	2020	77.793	3.299	3.876	66.165	2.744	583	11.628	555	3.293
	2021	105.590	1.480	4.208	95.706	1.309	1.777	9.883	171	2.430
	% Igoera	35,7	-55,1	8,6	44,6	-52,3	204,8	-15,0	-69,2	-26,2
Adierazleak										
Betetze-indizea (%)	2020	63,3	78,7	90,0	66,7	81,6	92,2	48,2	71,4	88,8
	2021	67,0	75,7	90,9	71,2	78,3	97,6	47,8	69,3	87,8
	% Igoera	5,8	-3,8	1,0	6,7	-4,0	5,9	-0,8	-2,9	-1,1
Batez besteko egonaldia (egunak)	2020	4,5	17,0	149,6	4,7	15,6	92,1	3,5	23,1	224,8
	2021	4,4	18,2	150,7	4,8	16,5	92,7	3,1	25,2	223,1
	% Igoera	-2,2	7,1	0,7	2,1	5,8	0,7	-11,4	9,1	-0,8
Txandakatze-indizea (paz./ohe)	2020	51,3	16,9	2,2	51,4	19,1	3,7	50,8	11,3	1,4
	2021	55,1	15,2	2,2	54,6	17,3	3,8	57,2	10,0	1,4
	% Igoera	7,4	-10,1	0,0	6,2	-9,4	2,7	12,6	-11,5	0,0
Hilkortasun gordinaren indizea (%)	2020	3,3	30,5	1,9	3,5	29,7	0,7	2,4	33,8	3,2
	2021	3,1	28,2	1,2	3,3	28,2	0,2	2,2	28,4	2,3
	% Igoera	-6,1	-7,5	-36,8	-5,7	-5,1	-71,4	-8,3	-16,0	-28,1
Nekropsia-indizea (%)	2020	51,0	-	-	57,0	-	-	12,4	-	-
	2021	45,6	-	-	52,6	-	-	0,8	-	-
	% Igoera	-10,6	-	-	-7,7	-	-	-93,5	-	-
Zesarea-indizea (%)	2020	14,8	-	-	13,9	-	-	22,2	-	-
	2021	14,7	-	-	13,9	-	-	21,5	-	-
	% Igoera	-0,7	-	-	0,0	-	-	-3,2	-	-
Larrialdietako presioa (%)	2020	50,6	50,2	10,0	57,1	60,8	4,9	21,5	-	19,4
	2021	50,0	50,0	5,1	56,3	61,8	1,5	23,4	-	12,0
	% Igoera	-1,2	-0,4	-49,0	-1,4	1,6	-69,4	8,8	-	-
Ospitaleratzeak eragiten dituzten larrialdiak (%)	2020	13,7	67,2	24,2	16,3	67,2	-	5,3	-	24,2
	2021	12,3	64,3	42,3	14,3	64,3	-	5,1	-	42,3
	% Igoera	-10,2	-4,3	74,8	-12,3	-4,3	-	-3,8	-	74,8

Iturria: Arreta Espezializatuko Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Ohar metodologikoak:

- 2013az geroztik ospitale publikoetako informazioa Osakidetzako antolakuntza nagusiko informazio-zerbitzuetatik etortzen da. Aurrez, informazio hori ospitaleetatik zuzenean jasotzen zen.
- Sektore publikoko jarduera ekonomikoari dagokionez, 2013az geroztik ordura arte kontuan hartzen ez ziren bi partida sartzen hasi ziren: amortizazioan dagoen gastuari buruzkoa (sarreraren kontuan duen kontrapartidarekin) eta Osakidetzaren inbertsio estrategikoei buruzkoa.
- 2015etik aurrera, Osakidetzaren Eibarko ospitale berriaren inbertsioa sartu zen.
- Giza baliabideei, baliabide fisikoei, arreta-jarduerari eta jarduera ekonomikoari buruz ospitale-estatistikan txertatutako datuak arreta espezializatuari dagozkio.
- 2017tik aurrera, Alfredo Espinosa ospitalea - Urduliz (Osakidetza) sartu da estatistikan
- 2017tik aurrera, 704. kontuan —Estatuko Osasun Sistemako erakunde edo organismoekin itundutakoak (Osakidetza)—, lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko jarduera sartzen da.
- 2019an Quirón Donostia eguneko ospitalearen jarduera sartu zen.
- 2020an hasi zen EAEn COVID-19ren pandemia.